

Erref.: FMR/Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK

HAU ZIURTATZEN DU:

2025eko abenduaren 3ko bilera arruntean (4/25 akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

9. Gaia.- Erabakia, 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagozkion Goi-Mailako Teknikarien kategoriako hautaprobeen deialdia onesteari buruzkoa

Lehenengoa.- Gobernu Batzordearen 2022ko abenduaren 19ko erabakiaren bidez onetsitako Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen enplegu publikoaren eskaintzarekin bat etorritz, hautaprobeen deialdia egitea, eranskinean zerrendatutako GOI-MAILAKO TEKNIKARIAren plaza betetzeko.

Bigarrena.- Deialdi hori aratuko duten oinarri orokorrak eta espezifikoak onestea. Jasota gera daitezen, erabaki honi erantsi zaizkio.

Hirugarrena.- Oinarriak argitara daitezela agintzea: oso-osorik, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta laburpena, berriz, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta GUFeko iragarki-oholean eta web-orrian.

Laugarrena.- GUFeko gerente jaunari ahalmena ematea deialdi hau izapidetzeko beharrezkoak diren ebazpenak har ditzan.”

Eta hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko, eta bileraren akta onartzeak aldaketak eragin ditzakeela kontuan hartuta, ziurtagiri hau egin dut.

Sin./Fdo.: DAVID LATXAGA UGARTEMENDIA - 2025-12-10
GUFE-REN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

